Laudio Llodio

ALKATETZA ARLOA
Idazkaritza
Tlf.: 94 403 4800 / Fax.: 94 403 4751

ÁREA DE ALCALDÍA
Secretaría
idazkaritza@laudio.eus

Herriko Plaza,
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)

**ARANTZA LILI SALAZAR, LAUDIOKO HARAN NOBLEAREN UDALEKO IDAZKARI OROKORRAK,**

**ZIURTATURIK:** Laudioko Udalbatzak, **2016ko abenduaren 26an** egin duen ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, gehiengoz, EH Bildu (5) eta EAJ-PNV (5) aldeko botoaz; eta OMNIA (3); PSE-EE (2) eta PP (1) kontrako botoaz, honako erabaki hauxe hartu duela:

**ARANTZA LILI SALAZAR, SECRETARIA DEL AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE LLODIO,**

**CERTIFICA:** Que en la sesión ordinaria de Pleno de este Ayuntamiento celebrada el **26 de diciembre de 2016**, se aprobó, entre otros, por mayoría, con el voto favorable de EH Bildu (5) y EAJ-PNV (5) y el voto en contra de OMNIA (3); PSE-EE (2) y PP (1) el siguiente acuerdo:

LAUDIO UDALERRIKO KALE IZENDEGIA EGOKITZEKO PROPOSAMENA: "BATZALARRIN" TOPONIMOAZ ORDEZTEA ORAINGO "PIO XII" IZENA. **ALKATE-UDALBURUAREN PROPOSAMENA UDALBATZARI.**

*PROPUESTA DE ACTUALIZACIÓN DEL NOMENCLÁTOR CALLEJERO DE LLODIO: SUSTITUIR CON EL TOPONIMO "BATZALARRIN" EL NOMBRE "PIO XII".* ***PROPUESTA DEL ALCALDE-PRESIDENTE AL AYUNTAMIENTO PLENO.***

Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko otsailaren 26an izandako ohiko bileraren barruan, galde-eskeen atalean, oraingo Pio XII kalea berrizendatzeko egon litezkeen bestelako aukerak aztertzea erabaki zuen. Hauek izan ziren zehaztutako aukerak:

1. Gabriel Aresti.
2. Toponimia-izen bat, Euskara arloaren proposamenaz.
3. Hezkuntza, Berdintasuna eta Gazteria arloaren proposamena.

Behin aztertuta zeuden aukera ezberdinak, Euskara Arloaren bitartez

Dentro del apartado de Ruegos y Preguntas de la sesión ordinaria de la Junta de Gobierno Local celebrada el 26 de febrero de 2016 se acordó el estudio de las siguientes propuestas para una posible modificación en la denominación de la actual calle Pio XII. Eran las siguientes:

1. Gabriel Aresti
2. Denominación toponímica, a propuesta del Área de Euskera.
3. Propuesta del Área de Educación, Igualdad y Juventud.

Una vez estudiadas las diferentes

proposatutako BATZALARRIN izenari eman zaio lehentasuna bera baita udal arautegietan jasotakoarekin hobekien egokitzen dena. Bestetik bat dator toponimia, ondare elementua izanagatik, zaintzeko irizpide orokorrekin. Gure historian, gainera, garrantzi bereziko izena da Batzalarrin, leku horretan behinolako herri-batzarrak egiten zirelako, oraingo udalaren aurrekaria. Egungo Pio XII kalea da, gainera, proposatutako izen hori eramateko kale egokien eta hurbilena arestian esandako txostenean ondo adierazi bezala. Xehetasun gehiago izateko, erabaki honi atxiki zaio, eranskin moduan.

Aintzat hartuta Euskara Arloko Buruak idatzitako txostena eta gainera Euskaltzaindiaren Onomastika Zerbitzuaren onespena duena.

Bestetik, kontuan izan behar da Pio XII kaleari zuzenki lotua beste barne-kale bat dagoela udal kale-izendegi ofizialean, "Pio XII (pasabidea / pasaje)" izenekoa. Hori ere egokitu beharko litzateke izen berbera erabiliz, "Batzalarrin (pasabidea / pasaje)" izatera pasatzeko.

Ikusita Euskara Arloko Buruaren proposamena.

Ikusitakoak aintzat hartuta, Alkate-udalburu honek UDALBATZAri proposatzen dio har daitezen ondoko **ERABAKIAK:**

opciones, se ha dado prioridad a la del nombre de lugar BATZALARRIN, propuesta desde el Área de Euskera, ya que es la que mejor se adapta a la normativa municipal y a los criterios generales de consideración de la toponimia como elemento patrimonial a salvaguardar. Es asimismo un nombre de gran relevancia histórica ya que Batzalarrin es el lugar en donde se hacían las juntas populares en otras épocas, el precursor del Ayuntamiento de hoy. El Pío XII actual es, por otra parte, el vial más adecuado y próximo para ostentar dicha denominación según el informe anteriormente citado y que, para una mayor precisión, se adjunta como anexo a esta propuesta de acuerdo.

Teniendo en cuenta el informe del Responsable del Área de Euskera y que cuenta con el beneplácito del servicio de Onomástica de Euskaltzaindia.

Asimismo, existe un vial interior cuyo nombre está supeditado al de la calle principal: "Pio XII (pasabidea / pasaje)" en el callejero oficial. También tendría que adecuarse éste usando la misma denominación, pasando a ser por tanto "Batzalarrin (pasabidea / pasaje)".

Vista la propuesta del Responsable del Área de Euskera.

Vistos los cuales, este Alcalde-presidente propone al AYUNTAMIENTO PLENO la adopción de los siguientes **ACUERDOS**:

**LEHENENGOA**. Onartzea egungo Pio XII kale-izenaren aldaketa eta bere ordez BATZALARRIN toponimo historikoa jartzea.

Izen horrekin izendatzen zen herri-batzarrak egiteko lekua, zuhaitz baten inguruan hasieran, eta harrizko mahai batean geroago. Hau da, oraingo udalbatzaren aurrekaria da. Izatez, toponimoaren esanahia 'batzarretako eliza-aurrea' da.

Bere euskarazko deklinabidea Batzalarringo (eta ez Batzalarrineko), Batzalarrindik, Batzalarrinen, Batzalarrinera... izango da.

Azentuazioari dagokionez, Batzálarrìn egingo da euskaraz (azentu nagusia bigarren silaban eta azentu ahula azkenekoan) eta gaztelaniaz, Batzálarrin.

**PRIMERO**. Aprobar la sustitución de la denominación de la actual calle Pio XII por la del topónimo histórico BATZALARRIN.

Con dicho nombre era denominado el lugar en el que en torno a un árbol primero y en una mesa de piedra después, se celebraban las juntas del pueblo. Es decir, fue el precursor del Ayuntamiento actual. Su nombre significa 'el atrio de las reuniones'.

Su declinación en euskera será Batzalarringo (y no Batzalarrineko), Batzalarrindik, Batzalarrinen, Batzalarrinera...

En lo referente a la acentuación se articulará Batzálarrìn en euskera (acento principal en la segunda sílaba y débil en la última) y en castellano Batzálarrin.

**BIGARRENA**. Onartzea egungo "Pio XII (pasabidea / pasaje)" menpeko kale-izenaren aldaketa eta bere ordez "BATZALARRIN (PASABIDEA / PASAJE)" izena jartzea, kontuan izanda erabilera zuzena dela "Batzalarrin pasabidea" euskaraz eta "Pasaje Batzalarrin" gaztelaniaz.

Baina forma biak ezinbestez elkarrekin agertu behar direnean halaxe egingo da: lehenago euskarazko "pasabidea"

**SEGUNDO** Aprobar la sustitución de la denominación del vial subsidiario "Pio XII (pasabidea / pasaje)" por el nombre "BATZALARRIN (PASABIDEA / PASAJE)", teniendo presente que su uso correcto es el de "Batzalarrin pasabidea" en euskera y "Pasaje Batzalarrin" en castellano.

Cuando ambas formas hayan de aparecer

generikoa eta geroago gaztelaniazko "pasaje" generikoa, barra zeihar bat tartean. Hau da, "Batzalarrin (pasabidea / pasaje)".

Bestetik, "pasabidea" hitzaren amaiera artikulua da eta ez berezko soinua. Beraz, "pasabidea", "pasabidean" baina ez "pasabideako", "pasabideatik"... "pasabideko", "pasabidetik"... baizik.

de manera conjunta se hará reflejando primero el genérico en euskera "pasabidea" y posteriormente el genérico "pasaje" de castellano, separados por una barra oblicua. Es decir, "Batzalarrin (pasabidea / pasaje)".

Por otra parte, el final de "pasabidea" es un artículo y no un sonido orgánico. Por tanto, se usará "pasabidea", "pasabidean" pero no "pasabideako", "pasabideatik"... sino "pasabideko", "pasabidetik"...

**HIRUGARENA**. Erabaki honen berri helaraztea INE, EUSTAT, Arabako Foru Aldundia, Postetxera eta antzekoetara eta argitaratu ALHAOn, bai udalaren web orrian, ZUINen eta iragarki oholean.

**TERCERO**. Dar traslado del presente acuerdo al INE, EUSTAT, Diputación Foral de Álava, Correos y similares y publicarlo en el BOTHA, web municipal, ZUIN y tablón de anuncios.

**Eta erasota uzteko eta bidezkoak diren ondorioak sor daitezen, honako hauxe ematen dut Alkatearen on iritziaz.**

**Y para que así conste y surta los debidos efectos donde proceda, expido la presente certificación y con el visto bueno del Alcalde.**

**Laudion, 2016ko abenduaren 27an**
**Llodio, a 27 de diciembre de 2016**

**Alkateak/El Alcalde,**

**-Jon Iñaki Urkixo Orueta-**

**Idazkaria / La Secretaria,**

**-Arantza Lili Salazar- -**